En relación con el homenaje realizado a Juan García Gonzalez, asesinado por ETA, toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu que informa que una persona que ni siquiera asistió al acto, se ha quejado de que no se informó a la población y de que el Ayuntamiento se ha gastado 3.000 euros en dicho acto. Por ello quiere que se le hagan llegar las cuentas de lo que costó el homenaje para con los datos en la mano, pueda hacer callar a toda esa gente que habla sin saber. Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad, que manifiesta que además de no ser verdad la cantidad mencionada, los costes están subvencionados por el Gobierno de Navarra.

La Corporación se da por enterada.

Multas Ganado

Toma la palabra el concejal Sr. Dufur que exponiendo los problemas que existen con el ganado francés que se mete en el comunal de Burguete, propone que se recoja dicho ganado se lleve al cerrado de Antsobi, y quien quiera recuperar el ganado debe pasar por el Ayuntamiento para pagar la sanción correspondiente.

Estando de acuerdo el resto de concejales, se estudiará que sanciones aplicar y la tramitación a seguir.

11.- RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19,30 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2017ko azaroaren 20ko 17:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Aneva Cilveti Loperena, Arkaitz Karrika Iribarren, Iñaki Xabier Yoller Urdiruz, Pedro Juan Karrika Narbaitz, Mikel Gaztelu Alonso eta Francisco Javier Dufur Oharriz, bilkuraburu alkateak, Luis De Potestad Tellechea izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

1.- 2017ko APIRILAREN 10eko, UZTAILAREN 20ko ETA URRIAREN 25eko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2017ko apirilaren 10ean, uztailaren 20an eta urriaren 25ean egindako osoko bilkuren aktak onartzea.

2- 2017ko APIRILAREN 7tik AZAROAREN 16a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, de Potestad jn.ak., 2017ko apirilaren 7tik azaroaren 16ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

3.- AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA

Alkateak, de Potestad jn.ak jakinarazi du beharrezkoa dela aurrekontuko bi aldaketak onartzea, lehenengoa 2015eko 31 ebazpenarekin zerikusia du, harresien hesia egiteari buruzkoa, eta bigarrena eguraldi txarraren ondorioz egin beharreko lanei buruzkoa, eta aurrekontuan diru-sailarik ez dagoenez ezta horiek ordaintzeko diru-poltsarik ere, diru-sailak sortu behar dira. Horiek horrela, aurrekontua orekatu behar denez, honako aldaketak onartu behar dira, kasu honetan gastu orokorretarako dagoen diruzaintzako soberakinaren kargura.

Udalbatzak erabaki du aho batez honako aurrekontuko aldaketak onartzea:

1. Aldaketa:

KREDITU BEREZIA:

1690 6000 HARRESIEN HESIA 3.605,80.-€

FINANTZAMENDUA:

87000 Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako 3.605,80 euro

2. Aldaketa:

KREDITU GEHIGARRIA:

9200 6820000 UDAL TEILATUEN BERRIKUSPENA 5.018,90

4890004 ASEGURUAK ELURTEENGATIK TEILATUENTZAKO EMANDAKO KALTE-ORDAINA 5.018,90.-€

4.- 2018KO ZERGA-TASAK. ONESPENA.

Alkateak, de Potestad jk., proposatu du 2018ko zerga tasak onartzea, hona hemen:

1.-Ehuneko 0,2824ko karga-tasa jartzea hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko

2.-Ehuneko 0,80ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.

3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)

4.-1,4 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.

5.-Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,2 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,5eko tasa.

6.- Etxeko egur-lote bakoitzeko 30 €-ko tasa jartzea.

7.- Gainontzeko zerga tasei KPIren igoeratik salbuestea.

Aho batez erabaki da alkateak. egin duen proposamena onartzea eta 2018ko zerga-tasak onartzea, hona hemen:

1.-Ehuneko 0,2824ko karga-tasa jartzea hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko

2.-Ehuneko 0,80ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.

- 3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxienerako tarifa: 30 euro)
- 4.-1,4 indizea jartzea jarduera ekonomikoaren gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
- 5.-Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,2 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,5eko tasa.
- 6.- Etxeko egur-lote bakoitzeko 30 €-ko tasa jartzea.
- 7.- Gainontzeko zerga tasei KPIren igoeratik salbuestea.

5.- HERRIKO FESTEN EGUTEGIA ETA 2018KO LAN EGUTEGIA

Alkateak, de Potestad j.k egin duen egutegi proposamena ikusirik, aho batez erabaki da:

1º.- Herriko festen egutegi hau onartzea:

| | |
|---------------------------------------|--------------------------------------|
| Igautreak | otsailak 11 |
| Eguberriko edo Gurutze Santuko Feria: | maiatzaren 6a |
| San Juan Festak: | ekainaren 22a, 23a, 24a eta 25a |
| Eskulangintza azoka | abuztuaren 15a |
| Larrazkeneko Feria: | irailaren 16a edo 23a (zehaztu gabe) |
| San Nikolas: | abenduaren 7a |

2.- Guardia Zibilari, Osasun Etxeari, Suhiltzaileen Parkeari, herriko banku-bulegoei eta egutegiak eragina izan dezakeen edozein entitate eta erakundeei erabaki honen berri ematea, jakitun egon daitezten eta dagokion ondorioak izan ditzan.

3.- Indarra Aholkularitza Zerbitzuak igorri duen lan egutegia onartzea, Nafarroako Gobernuak bere langileentzako onartu duenarekin bat egiten duelako.

6.- MEDIKUAREN PISUKO ALOKAIRUA BERRITZEA

Aho batez erabaki da “Medikuaren etxea” bezala ezagututako Udal Plaza 1 zenbakiko etxebizitzaren alokairu-kontratua Suarez Arbilla jaunari berritzea urte baterako, hots, 2018ko abenduaren 31 arte. Kontratua ezingo da berritu.

Hartutako erabakia alokairudunei helaraztea, jakin dezaten eta behar diren ondorioak izan ditzan.

7.- BANDA ZABALAREN SAREAK ERATZEKO ERAIKITAKO ONDASUN ETA INSTALAZIOAK USTIATU ETA ERABILTZEKO PROIEKTUA, PLAN FINANTZARIOA ETA LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA.

Ikusirik 197/2017 EBAZPENA, maiatzaren 12koa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana, “Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioen programa” ataleko inbertsioen entitate titularrak eta sustatzaileak ezartzen dituen. Inbertsio horiek 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen II. eranskineko 3. atalekoak dira. Hain zuzen ere “Jaurrieta-Aurizberriko adarra”, haren aurrekontua 925.026,67 € dela, eta sustatzaileak Jaurrieta, Abaurregaina, Abaurrepea, Garaioa, Aribe, Garralda, Auritz eta Aurizberri direla.

Ikusirik Udalarentzako kostua 20.295,70 € direla.

Ikusirik proiektua eta inbertsioa egiteko elkarlanerako hitzarmena .

Aho batez erabaki da:

- 1.- “Jaurrieta-Aurizberri adarra” proiektua onartzea eta Aurizko Udalarentzako aurrekontua onartzea, 20.295,70 €.
- 2.- Jaurrieta, Abaurregaina, Abaurrepea, Garaioa, Aribe, Garralda eta Aurizko Udalen eta Aurizberriko kontzejuaren arteko Lankidetzaren hitzarmena onartzea, “Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioen programan” sartutako JAURRIETA-AURIZBERRI adarrari dagozkion lanak gauzatzeko eta eraikiko diren ondasun eta instalazioak erabiltzeko.
- 3º.- Jaurrietako Udalari erabakiaren berri ematea, proiektuaren titularra den neurrian, jakinaren gainean egon eta dagozkion ondorioak izan ditzen.

8.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 155. ARTIKULUAREN APLIKAZIOARI BURUZKO ADIERAZPENA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta jakinarazi du legebiltzarreko talde zenbaitek Erakundearen Adierazpena egin dutela, Ganbararen Arautegiaren babesean, Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua Katalunian aplikatu izanagatik, eta Gaztelu eta Karrika zinegotziekin batera, adierazpen horrekin bat egitea proposatu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Honako Erakunde Adierazpenarekin bat egitea:

EBAZPEN PROPOSAMENA:

1. Nafarroako Legebiltzarrak Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua aplikazioa erabatean gaitzesten du, baita katalanak legez eta demokratikoki hautatu zituzten Gobernuaren kideak behin-behineko espetxeratzeko neurri kanpoko erabakia ere. Modu berean berehalako kaleratzeko borondatea adierazten du.

2. Nafarroako Legebiltzarrak uste du PPren Espainiako Gobernuak, PSOE eta Ciudadanos taldeen laguntzaz, Kataluniako Gobernuaren esku hartu izana atzerapauso demokratiko oso larria, kezagarria eta onartezina dela, eta askatasun demokratikoekiko konpromisoa berresten du, herritarren ondarea direlako, eta ez eman zaien zerbait.

3. Nafarroako Legebiltzarrak eskatzen dio Espainiako Gobernuari eta Estatuko botereei bere errepresiozko estrategia alde batera uztea eta elkarrizketaren bidea hartzea, Kataluniako erakundeetako ordezkarien eskubide zibilak eta politikoak errespetatuz egoerari irtenbidea emateko.

- 2.- Hartutako erabakia Nafarroako Legebiltzarrari jakinaraztea, jakin dezan eta behar diren ondorioetarako.

9.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ADIERAZPENA, INDARKERIA HORREN KONTRAKO MUNDU MAILAKO EGUNAREN OSPAKIZUNA DELA ETA, AZAROAREN 25EAN

Aurreko urteetan bezala emakumeen kontrako indarkeria dela eta, ikusirik NUKFak igorri duen ADIERAZPEN INSTITUZIONALA 2017KO AZAROAREN 25EKOA, harekin bat egitea proposatu da.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

1go. Honako deklarazioa onartu eta harekin bat egitea:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA 2017KO AZAROAREN 25EKOA

Dagoeneko 18 urte igaro dira Nazio Batuen Batzar Orokorrak feministen aldarrikapen bat bere egin zuenetik; aldarrikapen horretan emakumeen kontrako indarkeria ikusarazteko eta gaitzesteko egun bat ezartzea eskatzen zen, eta horren bidez gobernuari, instituzio publikoari, nazioarteko erakundeei eta gizarte zibilari hausnarketa egin eta konpromisoak hartzeko gonbidapena egiten zitzaion.

18 urte hauetan, azaroaren 25ero, indarkeria matxistaren egiturazko izaera nabarmendu dugu, horixe baita emakumeenganako menderatze harreman asimetrikoen adierazpenetako bat, zeinaren gainean patriarkatua eraikitzen den. Azaroaren 25 bakoitzean munduko leku guztietan emakume eta neska izate soilagatik emakumeek eta neskek aurre egin behar izaten dioten indarkeria mota eta adierazpen anitzak ikusarazi nahi izan ditugu, indarkeria hori gertatzen den esparru horiek guztiak identifikatu eta haietan sakondu dugu, eta indarkeria hori deuseztatzeko baliabideak eta neurri espezifikokoak eskatu ditugu.

2017an, Europar Batasuna errefuxiatuak birkokatzeke ezarritako eguna igaro berri den honetan, saihetsezina zaigu emakume eta neska errefuxiatuek jasaten duten indarkeria espezifikoa erreparatzea. Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak sortzen eta birsortzen dituen egitura patriarkalarekin berarekin lotzeari utzi gabe, indarkeria hori are larriagoa da neska eta emakume errefuxiatuak bizitzen ari diren zaugarritasun handiko egoeretan. Genero desberdintasunak gure garaiko giza eskubideen urraketa iraunkorretako bat izanik, gerra eta gatazka armatuko testuinguruetan desberdintasun horien ondorioak onartezin bihurtzen dira nazioarteko komunitatearen iritziz.

Azken urteetan, gero eta handiagoa da Europa iristen diren emakume eta neska errefuxiatuen portzentajea, eta haien baldintzak eta errealitateak gertuagotik ikusten ditugunez, presentean egon beharko lirateke administrazio guztien agenda politikoetan ere. Jakin badakigu neska edo emakume izatearen ondorioz zaugarritasun maila gero eta azkarrago igotzen dela haien herrietan, leku batetik bestera mugitzen direnean eta iristen diren herrietan, menderatze patriarkalaren sistema indartu egiten dela militarizazio testuinguruetan, eta, beraz, desberdintasunak are sakonagoak izaten direla egoera horietan. Neska eta emakume errefuxiatuek honako egoera latzak pairatzeko arriskua izaten dute: sexu indarkeria, oinarriko zerbitzuetarako sarbidearen ukazioa (hala nola osasun eta hezkuntza zerbitzuetara) gizarte bazterketa, ezkontza behartuak, haurduntze goiztiarra, sexu edo lan esplotaziorako salerosketa sareetan harrapatuak izatea, eta abar.

Errealitate honen aurrean, neska eta emakume guztiei aukera berdintasuna eskaini eta bermatzeko legezko betebeharrak politiko eta etikoari erantzuteko beharra eta premia dugu, zernahi ere den haien jatorria eta egoera.

*Hori guztia dela-eta, modu kolektiboan, toki administrazioek **ADIERAZTEN DUGU***

GURE GAITZEZPENA emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten diskriminazioen ondoriozko sexu indarkeria mota guztien aurrean.

GURE KONPROMISOA, administrazio publiko garen aldetik, aktiboki lan egiten jarraitzeko emakume eta nesken kontrako zaurgarritasun eta indarkeria egoerek sortzen dituzten desberdintasun guztien aurka.

GURE EXIJENTZIA Europar Batasunean asiloa eskatu duten emakume errefuxiatuen egoerari buruzko Ebazpena bete dezaten; ebazpena aurtengo martxoaren 8an bozkatu zen, eta haren bidez adierazten da genero indarkeriaren kontrako estrategia integratuak aplikatu behar direla, emakumeak inskribatu eta dokumentatu behar direla modu indibidualean haien segurtasuna eta autonomia bermatzeko, eta EBn asiloa lortzeko jazarpen eta motibo baliagarri gisa aitortu behar direla, besteak beste, sexu eta genero indarkeria, emakumezkoen mutilazio genitala, neska edo emakumeen salerosketa, ezkontza behartuak, ohorezko krimenak, estatuek babesten duten sexu diskriminazioa, hori guztia giza baliabide eta bitarteko material egokiekin.

GURE ELKARTASUNA erasorik jasan duten edo eraildako emakumeekin eta sexu indarkeriari aurre egiten dioten emakume eta neskekin.

ETA HERRITAR GUZTIEI HONAKO GONBIDAPENA EGITEN DIEGU: emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten eta hura deuseztatzeko konpromisoa adierazten jarrai dezaten, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumeei haien askatasuna eta autonomia erabiltzen eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzeke konpromisoa ere, eta azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte har dezaten.

Soilik horrela egin ahalko dugu aurrera gizarte iraukor, demokratiko, bidezko eta berdinzaleago baten alde eta komunitate solidarioago eta bizitzeko egokiago baten alde.

2.- NUKFari erabaki honen berri ematea, jakin dezan eta behar den ondorioetarako.

10.- INGURUMEN PROIEKTUA ETA KIROL PROIEKTUA NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN DEIALDIAN SARTZEKO ESKAERA

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du Nafarroako Kutxa Fundazioak 2018ko diru-laguntzen deialdia argitaratu duela eta horien artean diruz lagundu ahal direla kirol eta ingurumeneko proiektuak eta proposatu du diru-laguntza eskatzea RAK kirol-proiektua garatzen jarraitzeko eta ingurumenarekin zerikusia duen bertze bat.

Aho batez erabaki da Nafarroako Kutxa Fundazioari laguntza eskatzea 2018ko deialdiaren bidez ingurumen proiektu baterako eta kirol proiekturako.

11.- ITURISSAKO FINANTZAZIOA-CAIXAKO MAILEGUA.

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Bianako Printzearen eta Udalaren artean hitzarmena sinatu dela "ITURISSA"ko proiektu arkeologikoa finantzatzeko 100.000 € jarriko dituela eta aldez aurretik diru hori ordaindu behar izan duela eta CAIXArekin kreditua sinatu dela, 90.000 € 6 hilabeterako, eta Nafarroako Gobernuak diru-laguntza ordaindu bezain pronto kreditua kitatuko dela. Modu berean jakinarazi da Aranzadi Elkarateak emaitzen aurkezpena eginen duela abenduaren 5ean Aurizko Kultur Etxean.

Udalbatza jakinaren ganean gelditu da.

12.- PROIEKTU MIKOLOGIKOAREN HITZARMENAREN ONESPENA

“ERRO-RONCESVALLES PARKE MIKOLOGIKOA MARTXAN JARRI ETA HAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA LANTZEKO” proiektuari dagokionez, horretan parte hartzen duten Udalen eta Orreagako Kolegiataren arteko lankidetzaren hitzarmena aurkeztu da, Orreagako Udalaren kasuan Kolegiata baita lurren jabea.

Horiek horrela, aho batez erabaki da hitzarmena onartzea. Hona hemen:

PARKE MIKOLOGIKOA MARTXAN JARRI ETA SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Batetik,

Enrique Garralda Erro, Erroibarko Udalaren alkatea.

Bertzetik,

Luis de Potestad Tellechea j., Aurizko Udalaren alkatea.

Luis Echeverria Echavarren j., Orreagako Udalaren alkatea.

Eta bertzetik,

Francisco Javier Izco Barberia j., Orreagako Errege Kolegiatako Priorea.

Aldeek, ordezkari diren neurrian, dokumentu honetan ezarritakoa betetzeko legezko ahalmena dutela aitortzen diote elkarri eta

ADIERAZTEN DUTE,

Erroibarren, Auritzen eta Orreagan, Nafarroako eta estatuko bertze ibarretan bezala, arazo hauek antzeman direla:

a) Zizen neurririk gabeko bilketa.

- Ziza gehiegi biltzen dira eta ez dira gutxienezko batzuk uzten, ugalketa sexuala bermatzeko eta horrek zizen birsorkuntza arriskuan jar dezake.

- Bilketa ohitura txarrak, tamainari dagokionez, eta basoko lurrustelaren gehiegizko zapalketa.

- Oihanetan gero eta zabor gehiago botatzen da, burdin hesien hausketa, oihaneko pistak hondatzea eta finketara sartzeko trabak egotea

- Baso faunarekiko arazoak, are gehiago ugalketa garaian baldin bada.

b) Landa eremuetako balio ekonomikoaren galera, kontrolrik gabeko zizen bilketaren ondorioz.

c) Intoxikazioen igoera, zizak jateagatik.

Urtero zizengatik intoxikazioak gora egiten ari dira, beti ere kanpainaren arabera. Eta garrantzizkoa da kontuan hartzea badaudela hilgarriak izan daitezkeen zizak, lanperna phalloides kasu.

d) Landa eremuen despopulazioa.

Mendietako eta landa eremuetako egungo deskapitalizazioak migrazioa dakarrela, tokiko landa garapena oztopatuz. Baliabide mikologikoak, ongi kudeatzen bada,

lanpostu zuzenak (aprobetxamenduaren kudeaketa) eta zeharkakoak (mikoturismoaren eta merkaturatzearen bidez) sor ditzakeela, landa garapen jasangarria sustatuz.

Nafarroako iparmendebaldeko herri-lurrak hondatzen ari direla jendeak gaizki aprobetxatzen baititu.

Arrazoi batzuegatik ala bertzeengatik mendietan gertatzen ari den etengabeko hondatzearengatik landa eremu hauetako bizilagunak kezkatuak daudela eta dauden baliabide gutxi horiek kudeatzeko eta aprobetxatzeko zailtasunen aurrean.

Orreagako eta Aurizko udaletako ordezkariak egindako bilera batean, bere herrietako bizilagunen kezka kontuan harturik, erabaki zutela Erroibarko Udaleri eskatzea bere basoetako baliabideekiko sentsibilizazioa eta kudeaketari buruzko proiektua martxan jartzea; baliabide horien artean zizak ere sartzen dira, eta mendietako titularrak diren neurrian horien jabe ere baitira. Neurririk gabeko bilketak baliabide mikologikoa balioan jartzeko landa garapen endogenoa oztapatzen duela.

Erroibarko Udala, gaiarekiko interes gehien baitu, eta gainerako udalen interesa ikusita, Garrapo enpresarekin harremanetan jarri eta Nafarroako Gobernuarekin proiektua martxan jartzeko egin beharreko gestioei ekin ziela, alde teknikoari zein finantzarioari dagokionean.

Erroibarko Udalak, proiektuaren interesgarritasuna ikusita eta 2004-2020 LGParen LEADER 4 leerroaren alde finantzarioan sartu ahal zelakoan izapideak egiten hasi zen.

2017ko urriaren 20ko 203 zk. duen NAO-n, proiektu emankor eta ez emankorren zako diru-laguntzen deialdiaren arauak argitaratu ziren, beti ere Nafarroako Landa Garapeneko 2014-2020 Programaren barne, Cederna-Garalur Elkartearen LEADER tokiko garapen estrategien barne.

Erroibarko Udalak memoria bat daukala, Garrapo S.L.-k egina, eta memoria hori Erroibarko, Aurizko eta Orreagako Udalek eta Orreagako Kolegiatak onetsi dutela.

Erroibar, Auritz eta Orreagako eremuetako baso produktuen ustiaketa eta hobekuntza martxan jartzeko esperientzia da, eta hitzarmena sinatzen duten guztiek horren alde egin dute.

Martxan jarri nahi den esperientziak mendi paisaiak eta ekosistemak mantentzen, gordetzen eta hobetzen lagunduko duela, etekin ekonomikoak eta ingurumenekoak ekarriz, eta hiru udalerrietako basoen jasangarritasunari lagunduz, aldi berean praktika onen eredu izanez inguruko herrietarako.

Elkarren arteko interesa kontuan hartuta baita elkarren artean lan egiteko asmoa ere, eta adostutakoa gauzatzeko alde guztiek duten ahalmena aitorturik, erabaki da

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da honakoa sinatzen duten aldeen arteko elkarlana bideratzea ERROIBAR, AURITZ ETA ORREAGAKO UDALERRIETAN PARKE MIKOLOGIKOA MARTXAN JARRI ETA SENTSIBILIZAZIOA LANTZEA proiektua garatzeko.

Bigarrena Proiektuaren ezaugarriak.

A.

a) **INFORMAZIO GUNE MIKOLOGIKOA** martxan jartzea, baliabide mikologikoa, bere aprobetxamenduak dakarren arazoekiko sentsibilizazioa eta etorkizunean osatu nahi den Erro-Roncesvalles Parke Mikologikoa ezagutzera eman eta horiekiko sentsibilizazioa lantzeko.

(b) **ESKUALDEKO BEHATOKI MIKOLOGIKOA** martxan jartzea, interes sozioekonomikoa duten zizen ekoizpena eta biltze-presioa ezagutzeko. Modu horretan egoeraren diagnostikoa eginen da, baliabide mikologikoa balioan jarri eta mantentzeko jokabide eraginkorrak martxan jarri.

c) **MIKOSAREA** ekimena martxan jartzea antzeko bertze ekimen batzuekin elkarlanean aritzeko sarea sortzeko eta eskualdeko bizilagunak elkartzeko ekintzailletza proiektuak garatzeko asmoz.

B. Elkarren artean baliabide mikologikoak balioan jartzearekin batera, epe motzean, **TOKIKO ENPLEGUA SORTZEA**. Aurreikusi da gutxienez bi lanpostu zuzen sortzea. Pertsona bat lanaldi osoz. Eta bertze bat lanaldi erdiz edo bi pertsona lanaldi erdiz 3 hilabetez.

C. Parke Mikologikoa eratzeko **BEHARREZKO INBERTSIOAK EGITEA**: seinalizazioa, web, mapa-gida, eta abar.

Hirugarrena. Aurrekontua

Hitzarmen honetan araututako proiektuaren aurrekontua 84.666,35 eurokoa da (BEZ barne). 1. Eranskinean aurrekontu xehatua dago, aurreikusitako gastuen prezio unitarioak zehaztuta.

Laugarrena. Finantzabidea

Aurrekontu osoa kontuan hartuz, 84.666,35 euro (BEZ barne), %70eko diru-laguntza publikoa eskatuko da, hots, 50.000,00 euro (gehieneko laguntza), Cederna-Garalurrek duen deialdiaren bidez, hau da 2014-2020 LGPren Leader 4 Lerroa, FEADER programarekin batera finantzatua. Gainerako %30a, hau da, 34.666,35 euro, Erroibar, Auritz eta Orreagako Udalen artean ordainduko dute, hitzarmen honen sinatzaile eta esperientzia garatuko den lur eremuen jabe diren neurrian.

Bosgarrena.- Aldeen konpromisoak.

1.- Orreagako eta Aurizko Udalen konpromisoa

1.1.- Proiektuaren jarraipenean, kontrolean eta garapenean parte hartzeko eta laguntza ematekoa.

1.2.- Proiektuaren emaitzak bizilagunen eta kanpokoaren artean ezagutzera emateko laguntzekoa.

1.3.- Bakoitzak bere udalerrietatik uzten dituen hektareen araberako ekarpen ekonomikoa egitekoa.

Aurizko Udala: 1.104 ha mikologiko

Orreagako Udala: 1.104 ha mikologiko

2. Erroibarko Udalaren konpromisoa:

- 2.1.- Proiektua martxan jartzeko administrazioko izapideak egin eta gauzatzea, baita jarduera gauzatzeko behar diren jarraipena, garapena, kontrola eta gainerakoak ere.
 - 2.2.- Lanen adjudikazioa kontratu publikoen 6/2006 Foru Legearen arabera egitea.
 - 2.3.- Barrutia egiteko baimena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko Baso Kudeaketaren Atalaren aurrean bideratzea.
 - 2.4.- Jaso litekeen diru-laguntza horretarako espresuki eratuko den kontuan erregistratzea, diru-laguntza osoa aipatuz, izen honen pean: “LGP FEADER-NG Diru-laguntza Proiektua Parke Mikologikoa martxan jarri eta harekiko sentsibilizazioa 2014-2020”.
 - 2.5.- Proiektuan aurreikusitako inbertsioak 2018ko abenduan bukatzea eta, ezustekoak gertatuz gero, 2019ko otsailaren 1a baino lehen. Modu berean, hornitzaileei egin beharreko ordainketak data hori baino lehen eginen dira, eta ordutik aurrera Cederna-Garalurri ordaintzeko eskaera egin ahalko zaio.
 - 2.6.- Erroibarko Udalak bere udalerriko 4.548 ha utziko ditu.
3. Orreagako Udalaren konpromisoa
- 3.1.- Esperientzia gauzatu nahi den lurren jabe den neurrian, horiek erabiltzeko baimena ematen du proiektua garatzeko.
 - 3.2.- Diru-laguntza lortuko ez balitz, proiektuaren kostuan parte hartzeko konpromisoa hartzen du bere udalerriak uzten dituen hektareen araberako proportzioan, hau da, 13.835,35 €, 20 urtean ordaintzeko. Eta Erroibarko Udalak diru-laguntza lortuko balu, 2014-2020 LGParen bidez, LEADER 4 lerroa, aurreikusita dauden diru-laguntzak proiektuaren %30, 30.000 € inguru, eta proiektu osoaren BEZa, 4.000 € inguru.
4. Aurizko Udalaren konpromisoa.
- 4.1.- Esperientzia gauzatu nahi den lurren jabe den neurrian, horiek erabiltzeko baimena ematen du proiektua garatzeko.
 - 4.2.- Diru-laguntza lortuko ez balitz, proiektuaren kostuan parte hartzeko konpromisoa hartzen du bere udalerriak uzten dituen hektareen araberako proportzioan, hau da, 13.835,35 €, 20 urtean ordaintzeko. Eta Erroibarko Udalak diru-laguntza lortuko balu, 2014-2020 LGParen bidez, LEADER 4 lerroa, aurreikusita dauden diru-laguntzak proiektuaren %30, 30.000 € inguru, eta proiektu osoaren BEZa, 4.000 € inguru.
5. Orreagako Errege Kolegiataren konpromisoa
- 5.1.- Esperientzia egin nahi den lurren jabe den neurrian eta proiektua gauzatzeko interes zuzena duenez, bere lurrak uzten ditu proiektua gauzatzeko inolako konpentsazio ekonomikorik gabe.

Seigarrena.- Indarraldia

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik sartuko da indarrean, eta FEADERrek eta Nafarroako Gobernuak finantzatutako LGParen 2014-2020 Leader 4 lerroak emandako

diru-laguntzaren bidez hartutako konpromisoak bete arte iraunen du. Proiektuak jardunean egon behar du gutxienez diru-laguntza jaso ondoko 5 urteko epean.

Zazpigarrena.- Hitzarmenaren Arautegi Juridikoa.

Elkarlanerako Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta hartan ezarritako klausulek arautuko dute, edo horien ezean, arautegi orokorrak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen hau interpretatzean eta betearaztean eman daitezkeen eztabaidak aldean arteko adostasunez konpondu beharko dira.

Hitzarmena sinatu duten toki entitateen arteko eztabaidak gertatuz gero, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak dioena aplikatuko da.

Adostasunik lortu ezean, balizko eztabaidak Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarri moduan konponduko dira. Diru-laguntza jasotzeko hitzarmen honen sinatzaileek badakite arautegi hauetan ezarritakoa bete behar dela:

- 1) 2013ko martxoaren 7ko 46 NAO n argitaratu ziren Cederna-Garalurren diru-laguntzen arauak eta deialdia.
- 2) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.
- 3) Nafarroako Administrazio Publikoetako Kontratuen ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea.

Zortzigarrena.- Elkarlana

Hitzarmenean parte hartzen dutenek fede onez eta zilegizko konfiantzaz jardungo dute eta horrela arituko dira haien artean une oro.

Bederatzigarrena.- FEADERren eta Nafarroako Gobernuaren publizitatea.

Proiektuarekin zerikusia duten argitalpenetan, bileretan eta jardueretan FEADER eta Nafarroako Gobernuaren laguntza adierazteko konpromisoa dute aldeek. Hori guztia FEADERrek eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen duten 2014-2020 LGPren Leader 4 lerroko diru-laguntzei buruzko publizitateari dagokion arautegia aplikatu behar baita.

Hamargarrena.- Esperimentazio proiektuaren Jarraipen Batzordea.

Erroibar, Auritz eta Orreagako Udalek proiektuaren Jarraipen Batzordea osatuko dute, egiten dena balioesteko. Proiektuaren indarraldian zehar 3 bilera egitea proposatu da eta horietako bakoitzaren akta egingen da:

Lehenengoa) Inbertsioak egin ondoren eta Cederna-Garalurri ordaintzeko eskaera egin baino lehen. Bilera horren gaineko txostena egingen da, egindako inbertsioekiko eta esperientziaren jarraipenaren protokoloarekiko adostasuna adieraziz.

Bigarrena) Bilera, 3. urtean.

Hirugarrena) Bilera, 5. urtean.

Bilera horien txostenak Cederna-Garalurri emango zaizkio.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmen honen lau aleak sinatzen dituzte goiburuan agertzen diren lekuan eta datan.

Izenpetua:
Enrique Garralda Erro j.,
Erroibarko Udalaren alkatea

Izenpetua:
Luis De Potestad Tellechea j.
Aurizko udalaren alkatea.

Izenpetua:
Luis Echeverria Echavarren j.
Orreagako Udalaren alkatea

Izenpetua:
Francisco Javier Izco Barbería j.
Orreagako Errege Kolegiatako priorea

13.- LANGILEEN EUSKALDUNTZE PLANGINTZA 2017/2018 IKASTURTEA

Ikusirik Aurizko Udalaren langileak 2017/2018 ikasturtean euskalduntzeko plangintza, euskara teknikariak aurkeztua, eta hura prestatzeko langile bakoitzaren egoera kontuan hartu dela bai eta Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako langileak euskalduntzeko ordu konpentsazioak eta konpentsazio ekonomikoak ezartzen dituzten 195/1993 Foru Dekretua eta 1311/2010 Ebazpena. Ikusirik plangintza aurreikusitako aurrekontua matrikulen kostuari dagokiola eta horietatik Udalak %50 ordainduko duela (86,70 € langile bakoitzeko), aho batez erabaki da:

Aurizko Udalaren langileak euskalduntzeko 2017/2018 Plangintza bere osotasunean onartzea eta erabaki honen berri euskara teknikariari, Teresa Iribarren, ematea.

14.- BESTERIK

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

Frontoiko Tabernan gertatutakoaren salaketa Guardia Zibilaren kuartelean

Jakinarazi da Frontoiko tabernan izan ziren gertaera batzuk eta Guardia Zibilaren kuartelean salaketa jarri zutela, pertsona itsu batek tabernan bere zakurrarekin sartu nahi zuelako eta ez zioten utzi. Udalak bere haserrea adierazi du horrelako gertaerek irudi txarra ematen baitute eta gertatu zitzaionari barkamena eskatuko dio.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Autokarabanentzako eremuaren azterketa

Yoller zinegotziak jakinarazi du Tximeleta elkarateak autokarabanentzako eremuaren azterketa egiten ari dela eta eremu hori non kokatuko den erabaki behar dela. Lekurik egokiena Osasun Etxearen ondoko lurzatia proposatu da, dagoen aparkalekua egokitu eta saneamenduarekin lotura egitea besterik ez baita behar. Lan horiek egin ondoren erabiltzaileei kobratuko zaizkien tarifak ezarri beharko lirarteke. Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du libreki hautatu beharreko lanen deialdian parte hartzeko Guallart Ingeniaritzari eskatu zitzaizola memoria prestatzea, baina diru nahikorik ez zegoenez, ez zen sartu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Karrikako zolaketa lanak (TAP 2017/2020)

Orreaga Karrika zolatzeko lanak 2018ko TAParen barne sartu dira eta jakinarazi da osasun etxeraino zolatu nahi dela; hartara, Guallart Ingeniariek egindako proiektua eta finantza-plana onetsi beharko dira; beste aldetik lurzatien baterakuntzaren mugarren mapa topografikoa egin behar da eta peritu bati deituko zaio. Modu berean alkateak dio kanposantuaren inguruko karrika zabaldu nahi dela, eta nahiz eta katastroan partikular batena dela agertu, ez da horrela, badagoela herri-lurretako zerbitzuaren txosten bat eta horretan argi eta garbi adierazten da herri-lurra dela eta katastroaren aldaketa egin behar dela.

Azkenik Gaztelu zinegotziak eskatu du lanak hasten direnean ez dadila hondeagailua sartu eta sasia nolanahi kendu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Musika Eskola.

Cilveti zinegotziak hitza hartu du eta jakinarazi du Musika Eskolako bilera egin zela eta horretan 2018ko aurrekontuak onartu zirela baita kuoten banaketa ere, eta Aurizko Udalak 4.491,00 € ordaindu beharko dituela, joan den urtean baino zerbait gehiago ikasle kopurua handitu baita. Arautegiaren aldaketari dagokionez, klaseak jasotzeko eskubidea dutenen edo ez dutenen gaia ez zegoen gai zerrendan eta ez zen horri buruz hitz egin, baina uste du udalbatzak erabakia hartu behar duela eta Udalaren iritzia ezagutzera eman hurrengo bileran hortaz aritzeko.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- 1.- 2017/2017 ikasturteko aurrekontuak onartzea
- 2.- Musika Eskolari jakinaraztea ikasleei ematen zaizkien diru-laguntzak aztertu eta aldatu behar direla, jardueraren kuota ordaindu dezaketen adinez nagusiei diru-laguntzarik ez dagokiela uste baita.

Aginte makilarri buruzko argibideak

Karrika Narbaitz zinegotziak hitza hartu du eta esan du ekainaren 18an, prozesioa zela eta, Agoizko alkatearekin mintzatu zela aginte makilaz eta haren antzinatasunaz, Ondoren, Aurizko aginte makila nahiko berria dela ikusirik, galdetu du zer gertatu den udaletxean zegoen aginte makila zaharrarekin. Idazkariak hitza hartu du eta esan du berak ez dakiela beste makilarik dagoen. Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta azaldu du berak kargua hartu zuenean aginte makila baten erosketa sinatu zuela eta ez dakiela zer gertatu den aurrekoarekin, baina uste duela hautsi zela esan ziotela. Yoller zinegotziak dio kargua uzten duen alkateak alkate berriari aginte makila eman behar diola.

Idazki bat prestatzea erabaki da, aurreko alkateari, Irigaray j., zer gertatu den aginte makilarekin eta zergatik erosi den berri bat argitzeko eskatuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Omenaldiaren azalpenak

ETAk eraildako Juan Garcia Gonzalezi egin zitzaion omenaldiari dagokionez, Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du ekitaldian parte hartu ez zuen bat kexatu dela ez zitzaiolako jendeari horren berri eman eta Udalak 3.000 € gastatu duela ekitaldian. Hortaz, omenaldiaren kostua jakin nahi du, jakin gabe hitz egiten duen oro isilarazteko. Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta esan du zenbateko hori ez dela egia eta kostua Nafarroako Gobernuak diruz lagundu duela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Aziendaren isunak

Dufur zinegotziak hitza hartu du eta Aurizko herri-lurretan sartzen den frantses aziendarekin dagoen arazoa azaldu du eta proposatu du azienda hori biltzea eta Antsobiko hertsian sartzea, eta azienda berreskuratzeko lehenengo isuna ordaindu beharko dela udaletxean.

Gainerako zinegotziak ados egonik, jarriko diren isunak eta jarraitu beharreko pausuak aztertuko dira.

15. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dago.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 19:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.